



## ITURRARAN BASERRIA

Iturraran, XVIII. mendeko jatorrizko egurrezko egitura mantentzen duen baserri ederra da. Osagai bitxiak ikusi daitezke oraindik: zurezko armazoiaren grabatutako zenbaki erromatarak, muntatze eta eraikitze ordena zehazten zituztenak, zutabeetan sarturiko itsulapiko sekretuak, sagardo dolarearen aztarnak, etab.

Bisitariantzako harrera-gunea izateaz gain, Pagoetako Parke Naturalaren interpretazio-zentroa ere bada.

Pagoetako ingurune fisikoa eta etnografikoa ezagutarazten laguntzen duen erakusketa iraunkorra, tailer didaktikoa eta euskarri interaktiboak aurkitzen dira Iturraranen. Hauei esker, naturaren eta giza jardueren arteko orekaren berri izango du bisitariak.

Bisita mota honetan baserriaren egitura, garai bateko banaketa, bizimodua eta ohiturak azaltzen dira.



Bisita gidatuak Helduak 4€

Haurrak 3€

Gutxienez 10 pertsonako taldeak osatu behar dira.

Aurretik hitzartutako taldeek lehentasuna dute